

**DIASPORAREN EGUNA  
DÍA DE LA DIÁSPORA VASCA**

2020-09-8 Ormaiztegi 8-09-2020

*Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari*

Herri agintari eta ordezkariok, jaun andreok, arratsalde on.

Gaur, hirugarrenez, Euskal Diasporaren Eguna ospatzen dugu, aurten Ormaiztegin.

Lehenik eta behin, Ormaiztegiko alkatea eta Gipuzkoako Aldundia zoriondu nahi ditugu.

Zumalakarregi Museoak maisuki uztartzen baitu, espazio txiki batean antolatuta, gure herriaren historia. Nahitaez, erakusketak, gaur egun gure artean bizi dugun errealidadearekiko parekotasunaren lekuko ere bada.

Erakusketaren gaia migrazioena da: bai kanpora joan zirenak eta baita etorri direnak ere.

Migrazioaren historia unibertsala da, denok ondo ezagutzen duguna.

Hoy, 8 de septiembre, es el Día de la Diáspora Vasca. Un día para reivindicar, dar a conocer y poner en valor este gran activo que tenemos como País.

Somos un Pueblo presente en todo el mundo gracias a una comunidad vasca comprometida y activa.

Este Día de la Diáspora Vasca tiene un doble objetivo:

-activar simultáneamente el gran potencial humano que tenemos a lo largo del mundo, en torno a las Euskal Etxeak o entidades vascas; y

-dar a conocer a la ciudadanía vasca esa realidad con que contamos en el exterior y mostrar el valor que representa para Euskadi.

El Pueblo Vasco tiene un espacio propio en el mundo global y este mundo forma parte también de nuestra realidad en Euskadi.

Herri migratzailea izan gara eta izaten jarraituko dugu, gure ADN-an datorrela esan dezakegu.

Historian zehar asko izan dira gure Herria uzteko arrazoiak: gerrak, krisi ekonomikoak edo pobrezia; baita abenturazaletasuna edo mundua ezagutzeko grina.

Orain, globalizazio garaian, edo beste era batera esanda, “mundua txikiagoa egin denetik”, formazioa edo lana dira erbestera joateko arrazoi nagusiak.

Aldi berean, egun, mundu osoko herritarrei egiten diegu harrera gure hiri eta herrietan.

Honen adierazle Ormaiztegi bera da, herri honetan 25 herrialde ezberdinetako pertsonak bizi dira.

Hemen ez daude kanpotarrak.

Hemen, eta Musoaren ekimenak horren lekuko dira, herritar berrien inklusioaren aldeko konpromisoa nagusitzen da.

Museoaren erakusketak “Leopoldina Rosa” itsas-ontziak 1843an egin zuen ibilbidea jaso du.

Itsas-ontzi horrek Uruguai zuen jomuga eta Baionatik abiatu zen 240 lagunekin.

Baina irten eta berehala, Pasaian geldialdi bat egin zuen eta beste 62 bidaiari hartu zituen, “gain karga” hura hartuz.

Itsas-ontziak ez zuen zorterik izan eta hondoratu egin zen Montevideora iritsi aurretik.

Guztira 72 lagun baino ez ziren bizirik atera bidai izugarri hartatik.

Egun ere horrelako gertaera tamalgarriak ezagutzen ditugu; Erakusketa honi esker hobeto ulertuko ditugunak.

Historiak sekulako ikasgaiak eskaintzen dizkigu, ahaztu behar ez ditugunak, kontutan hartu beharrekoak.

La dilatada historia migratoria vasca, la historia de nuestro Pueblo, nos tiene que servir para comprender los movimientos que se dan en nuestros días. Distintos Pueblos están llamando a la puerta de nuestra casa y deberemos saber acogerles; tal y como vascos y vascas hemos sido acogidos en otros Países.

He citado Uruguay y nos viene a la memoria la figura de Jose Maria Iparragirre a quien recordamos. Su canción “*Gazte, gaztetatikan herritik kanpora...*” ilustra el sentimiento de vivir lejos de la propia casa, la nostalgia, el apego a la tierra que le vió nacer, la experiencia migratoria, el compromiso con una lengua y una cultura en el exterior...

Este año celebramos el 200 aniversario del nacimiento de Iparragirre, una figura que merece nuestro recuerdo y homenaje.

El pasado sábado juré el cargo de Lehendakari en la Casa de Juntas de Gernika, bajo nuestro roble sagrado. Mi compromiso es seguir trabajando por este Pueblo, por todas las vascas y vascos en Euskadi y el mundo.

Los difíciles momentos que vivimos por la pandemia del coronavirus nos hacen sentirnos más próximos, porque sufrimos la misma realidad en todos los confines del mundo.

Compartimos el reto de adaptar y conjugar la acción de Gobierno con las nuevas realidades migratorias que se nos presentan. También apoyar y fomentar la red de Euskal Etxeak para seguir difundiendo el “*fruto*” al que se refería Iparragirre.

Eman ta zabalzazu munduan fruitua.

Amaitzeko, munduko euskaldun guztiak agurtzen ditut.

Bost egun direla izendatu ninduten Euskadiko Lehendakari datozen lau urteetarako.

Eusko Jaurlaritzatik eta Euskaditik jarraitu egingo dugu kanpoan bizi zareten guztioi laguntzen, zuekin elkartzen eta euskaldunen mundu mailako sarea ehuntzen eta indartzen.

Baditugu tresnak eta ikasi dugu bidea.

Orain bide hori jorratzen jarraitzea dagokigu.

Garai zail hauetan ere aurrera aterako gara.

Atea irekitzen digutenei jarrera eskertuz eta, bestetik, gure atera deitzen dutenei atea irekiz.

Diasporaren Egun honetan kanpoan diren euskaldun guztiak agurtzen ditugu eta “eman ta zabalzazu”, bihotzean daramaten jarrera, bihotz bihotzez eskertzen dugu.

Eskerrik asko Ormaiztegi eta zorionak denoi Diasporaren Egun honetan!